

B

BARREN

TOKIKOM

Baserrikoa plazara

Kontzezio Azoka, bihar, Mendaron





Olentzeroren zakua

Zergatik erosten duzu auzoko denda txikian?

Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletoen deskontuak eskuratuko dituzu. Erosketa bakoitzeko boleto bakarra erabili daiteke, eta ezin zaizkie bestelako beharpenei gehitu.

1. Tratu gertukoagoa eta pertsonalizatua eskaintzen dizutelako.
2. Aholkatzen dizutelako, eta era horretan zure konfiantza irabazten dutelako.
4. Gertuan erosita, hemen bertakoa balioesten duzulako.
5. Hemen bertako identitate kulturala zaintzen duzulako.
6. Gure bizilagunak direlako eta etxetik gertu ditugulako.
7. Auzoetako gizatasuna mantentzen dutelako, eta gizarte harremanak sustatu
8. Bizia ematen dietelako gure auzoei, eta askok auzoetako jaiak antolatzen eta auzoetan egiten diren ekintzetan laguntzen dutelako.
9. Eskaparateek kaleak janzten dituztelako.
10. Denda handien aldean, enplegu egonkorragoa eta kalitatezkoagoa sortzen dutelako.

Orain gurean!



KARPOS txamarra:
199 €

INOVA ROCLITE 282GTX zapatilak:
139,80 €

INOVA X-TACON 212 zapatilak:
119,90 €

ARCTERYX modelo ATOM
200 €

LOWA mendiko botak
180 €

SALOMON mendi zapatilak
140 €

TERNUA motxila
59,90 €

%10eko deskontua motxila guztietan

Maidagan
Jantzi denda

San Frantzisko, 20 - Elgoibar
Tel.: 744 098

Eguberrietan %15eko beherapena zure erosketetan kupo hau ekarri zergero!



EVOKA
shoes



Argazkietan agertzen diren modeloetan %15eko beherapena
Tiket honen iraupen balioa:
abenduaren 5etik urtarrilaren 5era arte



Esti
Gonzalez

Kaixo, Miren!
Oraindik egun batzuk falta diren arren, aurten Olentzerori zer eskatu nahi diodan pentsatzen nagoela harrapatu nau aste honetako testua idatzi beharrak. Gauza asko buruan, topikoak

gehienak: bakea, elkarbizitza hobea izatea munduan, oinarritzko eskubideak betearaztea, korrupziorik ez izatea, justizia gizartean gailentzea... Gauza ukiezin asko dira gogora etortzen zaizkidanak. Denongan eragina duten gaiak izanik, era batean edo bestean denok gaude ekarpen txiki bat egiteko moduan. Baina benetan eskaera zailak dira...

Orokorretik konkretura joko dut orduan aurtengo gutunean. Batetik bestera korrika goazen honetan, ezertarako denborarik ez dugun honetan, geure buruaz pixkat gehiago gogoratu behar garela ere jabetu naiz. Denbora atera nolabait geure ongizaterako, kirol pixkat egiteko, geu zaintzeko. Eta aukera ezinhobea dugu, gainera, gaur egungo teknologia aurreratu eta modernoa ongizatearekin uztartzen badugu. Etxean kirola egiteko konsola horietako bat ez legoke txarto aurtengo Olentzeroren gutunean.

“Proiektu polita kirola, osasuna, teknologia, hirigintza... uztartuta sortu duzuenak”

Honen haritik duela egun batzuk Ermuan aurkeztu zenuten proiektua etorri zait gogora. Jabetu ez diren irakurleentzat, proiektua horrelako zerbait dela ulertu nuen: jantzita daramazun pultsera batzuen bidez bakoitzak egiten duen kirolaren erregistroak gordetzen dira. Modu honetan bakoitzak bere osasunaren ardura bere gain hartzen du. Proiektu polita eta oso interesgarria. Kirola, osasuna, teknologia, berrikuntza, hirigintza, smart city-ak... kontzeptu guzti horiek uztarturik aurrera atera duzuenak. Zorionak!



Miren
Vives

Halaxe da, Esti. Ilusio handia jarri dugu proiektu honetan. Pentsa, nire lankide-bikote den Patxi hiru urte inguru daramatza ekimen hau lantzen, eta badirudi, iritsi dela martxan jartzeko momentua. Eta bai, diozun bezala, zutabe askoren gainean eraikitako proiektua da.

Kirolari dagokionez, nolabaiteko kontraste bati erreparatzen diogu: gero eta kirol-instalakuntza gehiago ditugu, eta nahiz eta kiroldegietan aukera gero eta zabalagoa izan eta hori etengabe berritu, jarduera fisikoa egiten duten herritarren kopuruak baxua izaten jarraitzen du.

“Herrien plangintza egitean zahartze-aktiboari kasu gehiago egin beharko genieke”

Begira ia egunero Sallobentera edo Sigmatic aurrera, edota Mendaron Lizarrolara joaten den jendeari: inkesten arabera, gure gizartean 50 urtetik gorakoen artean ibiltzea da kirol-jarduerarik gustukoena, kiroldegitik kanpora eta bere kasa. Hori horrela, zein da gero eta zaharkituagoa dagoen ia gizartearen erdiari zuzentzen zaion kirol-eskaintza? Gure herrien plangintza egitean zahartze-aktiboari eta bizimodu osasungarriari kasu gehiago egin beharko geniekela iruditzen zait. Izan ere, jarduera fisikoa gaixotasunen prebentziorako hain onuragarria izanik, eta osasun-sistema kinka larrian daukagun honetan, ez al genioke esfortzu handiagoea eskaini behar herritar guztiak aktibatzeari?

Teknologia eta smart city delakoak aipatu dituzu. Halaxe da, Debabarrenatik irten gabe detektagailuak, pultserak eta software bat prestatu ditugu: “lubaki digitala” gaindituz arketa fisikoa neurtzea da helburua, norberak bere burua zaintzeko edota familiakoek zein profesionalak zain gaitzaten... Ez da esfortzu makala izaten ari, zertan amaituko ote du Hiribilik?



Hemendik aurrera...

www.elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus




Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiari lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
biZi-biZiXal!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Barkamen eske

Aurreko igandeko Mugi dantza saioa dela eta, antzokira hurbildu ziren, haur, gazte eta familiei barkamena eskatu nahi diegu izan genituen akats eta hutsegiteengatik. Ez genuen aurreikusitako arazo teknikoak izango genituenik eta abesti batzuk entzun ezin izateak beste ondorio batzuk ekar zitzaizkion: desilusia, pena, amorrua...

Gauzak eginez ikasten da eta datorren urteari begira askoz hobeto prestatuko dugu guztia, horrelakorik gerta ez dadin: entsaio orokorrak egin, abestiak formatu egokian prestatu...

Barkamen-eskearekin batera, mila esker antzokira hurbildu zineten guztioi, eta batez ere, Malen, Judith, Intza, Nahia eta Ainitzeri, azken batean ezin izan zutelako euren lana eta ilusia behar bezala erakutsi.

Mendaroko Gaztelekuko eta Ludotekako arduradunak

Demokrazia eta erabakitze eskubidea

Abenduaren 10etik 12ra *Nazioak eta Estatuak XXI. Mendean: Demokrazia eta Erabakitze Eskubidea Nazioarteko Jardunaldiak* antolatu ditu Eusko Ikaskuntzak Donostian. Parte hartu nahi duenarentzat doan dira, baina alde aurretik izena eman behar da. Jardunaldi horien berri zabalagoa, egitaraua eta izen-emate orria, ondorengo web orrian duzue: <https://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/cursosyjornadas/listado/object.php?o=23714&actual=2>.

Gure Esku Dago

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Jendeak zabor poltsak zakarrontzian sartzen ditu: “Jendeak ez du ezer errespetatzen! Basarte auzoan zakarrontzian aurkitu dugu zabor poltsa bat, eta zakarrontziak ez dira horretarako. Zaborra botatzeko badaude edukiontzia, eta zakarrontziak zakar txikiak botatzeko erabili behar dira. Bizikidetzaren hobebharrez, gutxieneko arau batzuk bete egin behar ditugu, bestela jai daukagu. Herritarrei eskatu nahi diet zentzuz jokatzeko, mesedez”.



Lerungo espaloi bat sasiz beteta dago: “Lerungo industrigunera joaten gara sari pasiatzera, eta zenbait espaloi sasiz beteta daude. Inguruko belarrak eta sasiak asko hazi dira, eta espaloiraino iristen dira. Ondorioz, oinezkoak espaloitik bidera jaitsi behar izaten dugu. Eskertuko genuke ingurune hori txukuntzea”. Lerun industrigunea oraindik ez da Udalarena. Rikardo Garate Hirigintza Saileko arduradunak esan du laster hartuko dutela industrigunearen jabetza, baina momentuz zonalde horretako hobetze lanak industriguneko enpresek egin beharko lituzketela.



Arriaga industrigunea oso iluna da: “Arriaga industrigunean farola gutxi daude, eta oso ilun egoten da. Enpresa asko dago ingurune horretan, eta asko autoz joaten badira ere, badira lanera oinez joaten direnak ere. Neguko ordutegian sartu garenetik, oso goiz iluntzen du arratsaldetan, eta lanetik irteterako ilunduta egoten da eguna. Eskertuko genuke ingurune horretako argiztapena hobetzea”. Hirigintza Saileko arduradunak esan du Arriaga poligonoa pribatua dela, eta hobekuntza lanak ez direla Udalaren ardura. Beraz, industriguneko enpresek hartu beharko luketela argiztapena hobetzearen ardura.



Mintxetako gimnasioan makina berriak jarri dituzte: “Poliki-poliki bada ere, Mintxetako gimnasioan makina berriak jarri ditu Kirol Patronatuak, eta hori eskertzekoa da. Joan zen astean jarri zuten azkena, eta bide onetik goazela iruditzen zait. Eskerrik asko, eta segi horrela”.



I. URTEURRENA

ANTONIO ANSOLA ARRIETA

“Azkuba”

2013ko abenduaren 2an hil zen, 82 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, igandean, abenduak 7,
goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretenoi eskerrak alde aurretik.



16.500 euro erabili ditu Udalak Eguberrietako argiak jartzeko

Gaur piztuko dituzte argiak, eta urtarriaren 6an itzaliko dituzte

Eguberrietako argiak jarrita dituzte dagoeneko herriko kaleetan, eta gaur arratsaldean piztuko dituzte. 16.528 euro + BEZ erabili ditu Udalak aurten Eguberrietako argietan, iazko kopuru berbera, hain zuzen ere. Erdiguneko kaleetan eta herriko hainbat eraikin esanguratsutan jarri dituzte argiak, besteak beste, Kultur Etxean, Parrokian, udaletxean eta San Lazaro egoitzan. Horrez gain, Eguberriekin zerikusia duten eszenografiak egin dituzte argiekin Osasun Zentro aurreko berdegunean, Santa Anako eta Maalako errotondetan, Santa Klarako komentuan eta Giza Eskubideen parkean. Aurreko urteetan moduan, LED motako argiak erabili dituzte aurten ere, eta horri esker, argiaren kontsumoan aurreztu dute. Errege Egunean itzaliko dituzte argiak.



Enpresen beharrei erantzuteko fabrikazio ikastaroa abiatu du IMHk

Azaroaren 27an abiatu zuen IMHk Abiadura eta Etekin Handiko Mekanizazio ikastaroa (3. mailako Profesionaltasun Ziurtagiria), eta antolatzaileen iritziz, ikastaro honek aukera "ona" emango die enpresei, mekanizatu aurreratuan jarduteko lan-gile kualifikatuak lortzeko. Egun enpresek duten beharrei erantzuteko prestakuntza doitua da IMHk eskaintzen duena, fabrikazio mekanikoan ezagutzak dituzten pertsonak birkualifikatuz eta fabrikazioko teknologia berrietarako prestatuz.

Momentuz, eskola teorikoak jasotzen dihardute ikasleek, eta praktikak maiatzaren amaieran hasiko dituzte; beraz, 2015eko lan aurreikuspena egiten diharduten enpresei IMHrekin harremanetan jartzeko eskatu diete arduradunek, behararren araberako teknikaria praktiketan hartu ahal izateko. Interesatuak IMHko 943 748 270 telefonora deitu dezakete (Nora Ramon).

Mausitxa eta Txillarre saritu dituzte Eibarko San Andres Azokan



Rosa Mari Salegi eta Peio Rubio, Miguel de los Toyos Eibarko alkatearekin. (Arg.:Leire Iturbe)

Eibarko San Andres Azokako sari nagusiak elgoibartarrek irabazi dituzte aurten. Posturik onenak saritzen dituen lehiaketan, Peio Rubioren postuari eman zion lehen postua epaimahaiak, barazkien kategorian. 70 postuk hartu zuten parte San Andres azokan. Gazta lehiaketa ere egin zuten eta Elgoibarko Mausitxa baserrikoek lehiaketara aurkeztutako gazta alea izan zen onena epaimahaikeen iritziz.

Izena **MG Etxea**



Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sarietan, probintziako hamar merkataritza enpresa esanguratsuenak saritu ditu Gipuzkoako Bazkondeak, 10 bitxiak kategoriaren barruan, eta sarituen artean dago Elgoibarko MG Etxea Burdindegia. Sari horiek eskualdeka ematen dira, eta merkatariek eurak dira sariak ematen dituztenak boto bidez. Debabarrenako merkatariek Elgoibarko MG Etxea Burdindegia denda saritu dute, eta Maria Angeles Gabilondok berak jaso zuen saria.

Irudia **Istripua**

Auto bat erori zen domeka goizean A8 autobidetik bide gorrira, orain dela hilabete gertatu zen bezala. Bilboranzko noranzkoan zihoan autoa hamar bat metro behera erori zen, eta erortzean trenbideko kableak hondatu zituen. Euskotrenek tren zerbitzua eten behar izan zuten, eta autobusa jarri zuten Elgoibar eta Eibar arteko bidea egiteko. Autoan zihoazen lagunak anbulantzian eraman zituzten ospitalera. Ricardo Garate Hirigintza Saileko arduraduna kezkatuta agertu da hilabeteko epean bi auto erori direlako autobidetik bide gorrira, eta esan du Bidegirekin jarriko direla harremanetan, A8 autobideko zona horretako segurtasun neurriak aztertzeke.



Maalako parkea estaltzeko lanak atzeratu egingo dira

Maalako parkea estaltzeko lanak Eguberri jaietarako amaitzea aurreikusi zuten arduradunek, baina Ricardo Garate Hirigintza Saileko arduradunak jakinarazi duenez, "apur bat" atzeratu egingo da obra. Euriaren eraginez hainbat egunetan geldirik egon behar izan dute langileek, eta ondorioz, ez dute iragarritako epea beteko. San Anton jaietarako prest egotea espero dute.

Luizi arriskuaz ohartarazi du Udala PPko zinegotziak

N634 errepide ondoko mendian zulo bat dago, eta zuhaitzen bat errepidera erortzeko arriskuaz ohartarazi du Udala Javi Nuñez PPko zinegotziak. Hirigintza Saileko arduradunak esan du Brigadakoak ibili direla ingurunea aztertzen, eta ez dagoela arriskurik. Dena dela, lursail horren jabearekin jarriko dira harremanetan, segurtasun neurriak har ditzan.



Sigma eta Maalako TAO guneetan lau orduz utzi ahal izango da autoa

Hirian autorik gabe egitasmoaren barruan, hainbat neurri hartu ditu Udalak Mugikortasun Astean, eta besteak beste, herrigunea oinezkoentzat izatea erabaki zuten. Emaiza horiek aztertu eta horren arabera hartu dituzte behin betiko erabakiak, baina ordura arte beste neurri batzuk hartuko dituzte, eta horien artean Maalako eta Sigma-ko TAO-OTA guneetan aparkatzeko denbora muga hiritik lau ordu-ra handitu dute.

TERESA TODA

KAZETARIA

Kazetaria da Teresa Toda (Porto Alegre, Brazil, 1950) eta 'Egin' egunkariko zuzendariordea izan zen. Baltasar Garzon epaileak bultzatutako 18/98 auzian inputatu eta 2007an kartzelatu zuten. Sei urte egin zituen kartzelan, eta iazko azaroan laga zuten libre. Orain, Sare mugimenduarren bozeramaile lanetan dihardu, EAtik Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburu izan zen Joseba Azkarragarekin batera, eta martitzenean Elgoibarren izango dira biak Sare aurkezten. Musika Eskolako auditoriumean izango da aurkezpena, 19:30ean.



“Giza eskubideen alde ari diren guztien agenda politikoetan sartu nahi dugu presoen gaia”

“Euskal preso eta iheslarien etxeratzea ahalbidetuko duen herri sarea ehuntzeko” sortu duzue Sare. Presoen gaia ere politikarien esku lagatzeko baino serioagoa da?

Bai, bada. Urtarrilean Bilbon konponbidearen alde egin zen manifestazio jendetsuan dauka sorburua honek [Tantanez Tantaren mobilizazioaren debekuari erantzuteko alderdi eta sindikatu abertzale guztiek *Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea* lelopean egin zuten manifestazioaz ari da]. Pertsona ezberdinen arteko taldetxo bat sortu zen handik, benetako konponbidea lortzeko pausoak emateko nahia eta beharra zutenen taldetxo bat. Ikusten genuen bazela gizartean konponbiderako nahi bat eta horri bidea eman behar zitzaioela, eta ikusi genuen benetako konponbidea lortzeko bazela hutsune handi bat preso eta iheslarietako elkartasuna adierazteko edo haien alde lan egiteko moduan. Gero etorri ziren Eskoriatzako jardunaldiak. Herri askotako lagunak batu ginen han, batzuk presoen

aldeko mugimenduan aritutakoak eta beste batzuk berriak. Han adostu genituen gutxienekoak eta ekainean aurkeztu genuen Sare. Mugimedu horizontala izateko bokazioz sortu dugu, herriz herri modu natural batean sareko den mugimendua izateko eta bat egiten dutenek egunero euren esku dagoena egiteko konpromisoa hartzeko.

Euskal Herrian behinik behin presoak euskal herriratzeko aldarikapenak badu babes bat. Hala ere, beharra ikusi duzue taldea sortzeko. Zer da babes puntualgia? Presentzia handiagoa behar du agendan gai honek?

Babes handia du gaiak Euskal Herrian, baina indar hori guztia bildu eta bideratzeko jai da Sare, laguntzeko gai hau besteak beste nazioartean indar handiagoz zabaltzen. Kezkak gaudela alderdi politikoen agendetan eta instituzioetan preso eta iheslarien gaia noizbehinka baino ez delako agertzen eta tarteka mobilizazio handi batzuk egin arren –urtarrilaren 10erako antolatutako duguna kasu–, gai ho-

ni ez zaiolako behar bezala heltzen. Madrilek egiten dituen astakeriei erantzutea mugatzen dira, eta kontzientziatu behar ditugu gai hau egunero landu beharrekoa dela, azken batean giza eskubideen urraketaz ari garela. Alderdi politikoen eta giza eskubideen alde lanean ari diren eragileen agendetan sartu nahi dugu gaia, uste baitugu benetako konponbidea lortzeko ezinbestekoa dela.

“Aniztasunetik” egin nahi duzue hori. Hemen ere gertatuko da, baina, konponbidearen alde batzeko erreparoa izatea batzuek gai hau ezker abertzalearekin lotzen dutelako eta zuetako batzuk ere, aurriritziengatik edo, erreparoa izango duzuela beste batzuek gerturatzeko. Nola konpondu hori?

Lan handia dago egiteko, bai. Harresiak bota behar direla badakigu, baina era berean badakigu momentu honetan lasaiago ere badagoela egoera, eta esfortzua eskatu arren errazagoa egiten zaigula ‘besteengana’ jozte. Denok eman behar dugu pausoa, bai-

na: espaloi batetik joan garenok eta besteek. Etiketak kendu behar ditugu. Guk liburuskak bat sortu dugu eta nahi dugu besteengana hurbiltzea errazteko tresna izatea. Sakabaketa zer den eta horrek eragiten duen minaz ohartaraziko dugu, garbi utzita sakabaketa salatzea ez dagokiola ideologia jakin bateko jendeari. Presoek ere badituzte eskubideak, baina haienak eta haien senideenak etengabe ari dira urratzen, eta indarkeria mota batzuk desagertu badira ere, Estatuak jarraitzen du sufrimendua eragiten mendekuan oinarritutako kartzela politikaren bidez. Presoen senideak zigor handia betetzen ari direlako, epaituak izan gabe. Ez dugu ahaztu behar beraiek ez dutela aukeratu presoen senide izatea, tokatu egin zaie senide izatea.

Joseba Azkarragak dio bizitza politikoa erabat judizialduta dagoela gaur, eta Estatu bera eta ETaren biktimen zenbait erakunde tematuta ikusten dituela horri eusten. Epailerei eurei ere esan die ez luketela edozein sakaketa onartu beharko. Zer diozue zuk?

Epaileren aldetik zerbait aldatzen ari den ustea badut, batzuk kritiko ere agertu direlako Estatuaren jokabideaz eta sakabaketa bera ere zalantzan jarri dutelako, baina gutxi batzuk dira horiek oraindik. Erabaki politiko baten eragin behar du aldaketa, baina, sakabaketa erabaki politikoz ezarri zutelako eta amaitzeko bidea ere hori duelako. Hori lortzeko, presioa egin behar dugu guk, batez ere nazioartean. Guretzat funtsezkoa da nazioartek zer dioten gai honen inguruan, estatu espainola bera ere mugitu denean Estraburgok emandako epaiengatik mugitu delako.

Carlos Urquijo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren hitz batzuen harira Azkarragak esan zuen bake prozesua ez doala behin betiko bakera eramango gaituen bide-tik. Bidea zuzentzeko zein da eman beharreko lehen pausoa?

Presoen gaiari konponbidea ematea, uste dugulako urrunduta egon arren bake prozesuan ezinbesteko pieza direla, eragin eremu handia dutelako eta ondorioz haien kontrako politikek eragiten duten sufrimendua ere handia delako. Preso eta iheslarien etxeratzeari ahalbidetzea ezinbestekoa da, baina zoritxarrez horretarako giltza ez dugu guk, Estatuak baizik. Presioa egin behar dugu Estatuak behartzeko eta iritzia publiko bat sortzeko, zeinak argi esango duen euskal herrira-

tzea preso politiko guztiei dagokien eskubidea dela.

“Presioa egin behar dugu, Euskal Herriratzea preso guztiei dagokien eskubidea delako”

Astlehenean irten zen kartzelatik Carmen Gisasola preso, Langraiz bidea hartu zuenetako bat. Berak esan du ezker abertzalearen apustuan “oinarrizkoa” falta dela: autokritika egitea. Benetan bizikidetzara lortu nahi bada, egin den guztia ez dela justua izan onartu behar da bere ustez. Zer diozue?

Saren nork bere iritzia izango du, baina azpimarratu nahiko nuke Gisasola ez dela irten kartzelatik ETarekin kritiko agertu zelako, baizik eta Espainiako Auzitegi Nazionalak erabaki duelako Espainiako kartzelatan preso dituzten presoek Frantziakoetan igaro duten denbora aintzat hartzea. Europako agindua batek ekarri du Gisasola libre uztea, eta ez Espainiako Gobernuaren keinuak, baina hala eta guztiz ere, guk esaten duguna da eskubideez ari garela eta presoen eskubidea dela familiengandik ahalik eta gertuen egotea eta hori dela hemen urratzen dena. Hori da bat, baina Espainiako legedian onartutako beste eskubide batzuk ere urratzen zaizkie. Horregatik, presoen isolamendu eta bakartzeko egoerak amaitzeaz gain, libre egon beharko luketen presoak askatzea eskatzen dugu: gaitz larriak dituztenak, 70 urtetik gorakoak eta zigorraren 3/4k eta 2/3ak beteta dituztenak. Giza eskubideen urraketek ari garenez, iruditzen zait edonork egin dezakeela bat gurekin.

Ez duzu uste, baina, Langraizko bideari heldu izanak, alegia, eragindako sufrimendua aitortu izanak eta barkamena eskatu izanak, Carmen Gisasolari bidea erraztu dionik?

Sareren izenean ari natzaizu, eta Sare bezala ez daukagu baloraziorik eginda horren inguruan. Gure lana beste bat da: eskubide urraketaren gaia mahai gainean jartzea eta politikariak behartzeko hori agen-

da politikoetan sartzera, auzi orokorrari konponbide integral bat bilatzeko. Hala ere, Gisasolaren gaia atera duzunez, kontu bat esan nahiko nizuke. Esan dugu Europako araudi bati esker dagoela gaur Gisasola kalean eta araudi hori positiboa da, baina kezka ere sortzen digu. Suposatzen da Europako araudi horri jarraituz euskal presoak Frantziatik Espainiaratu egingo dituztela, baina beldur gara Espainiak ez ote duen araudi hori bere nahien arabera interpretatuko. Izan ere, araudi horren oinarrian presoak etxera ahalik eta gehien gerturatzea dago, baina Madrilek argudiatu dezake presoak Espainiaratuta bete duela araudia, eta gero presoak Andaluziako kartzelatarako bidali.

Biktimekin gertatzen den bezala, presoekin ere gertatzen da Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ez dituela preso guztiak ordezkatzeko, EPPK uzteko erabakia ere hartu dutelako batzuek. Haietaz ere ari al zarete presoak aipatzen dituzuenean? Presoen eskubideez ari gara, eta beraz, eskubideak urratuak dituzten preso guztien eta haien senideen alde ari gara.

Maila politikoan espero zenuten erantzuna jaso duzue?

Sare oso gaztea da, eta herriz herri egiten dihardugun lanetik nahi dugu eragile guztiekin harremanak, bereziki giza eskubideen inguruan lanean ari direnekin. Madrilen ere egon ginen joan zen astean, PP, PSOE, eta UPD ez beste Kongresuko alderdi guztiekin, eta Euskal Herrian ere harremanetan gaude haiekin. Alderdi politikoekin zerbait lortzea zaila dago orain momentuan, hauteskundearen usainean ari direlako eta ondorioz zaila delako presoen gaia eskubideen urraketan zentratzea. **PP, PSOE eta UPDekin ez zarete egon, baina hartu ez zaituztelako ala saiatu ez zaretelako?**

Ez gara egon, zuzenean ez diegulako eskatu momentuz, baina bai, haiekin ere bilatu nahi dugu, eta saiaturiko gara.

Zer esan nahi diezu elgoibartarrei?

Gerturatzeak hitzaldira. Elgoibarren ere badauzkazue presoak, haien artean bat oso ezaguna, eta ea ba denok batuta zer egiteko gai garen haien eskubideak ere errespetatu daitezela eskatzeko.



EUSKARA IKASTETIK EUSKARAZ BIZITZERA



Haurren eta nerabeen euskararen erabilera areagotzeko klabeak aztertzeko jardunaldia antolatu zuen Elgoibarko Izarrak joan zen barixakurako, Udalarekin propio sinatu duen hitzarmenaren bidez finantzatuta. Euskal Herriko hainbat adituk hartu zuten parte ekitaldian, eta gazteek euskara gehiago erabiltzeko zer egin daitekeen azaldu zuten, nor bere esparrutik. Hizlarien artean Naiara Martin Elgoibarko Izarrako aisialdi saileko arduradunak egin zuen berba, eta kultur elkarteak abiatu berri duen 'Gurean Bai' proiektuaren berri eman zuen.

Ainhoa Andonegi

Zer egin dezakegu Elgoibarko eta Euskal Herriko haurrek eta nerabeek euskaraz gehiago egin dezaten? Galdera horixe izan da Elgoibarko Izarrak antolatu duen mintegia-
ren abiapuntua. Izan ere, euskararen erabileraren gaineko kezka ez da berria. Euskaraz dakiten haurren eta nerabeen portzen-
tajeek etengabe gora egiten badute ere, erabilera-datuekin ez da gauza bera gertatu, eta desoreka nabarmena dago dakitenaren eta egiten dutenaren artean. Elgoibarko Izarrak, Udalak eta herriko ikas-
tetxeek, beste elkarte eta eragile batzuekin batera, urte asko dara-
matzate lanean herriko haurrek eta nerabeek euskaraz gehiago egin
dezaten, eta horren gaineko nolabaiteko hausnarketa egiteko jardu-
naldia egin zuten joan zen barixakuan IMHn. Eskola orduz kanpoko
jardueretan zentratu ziren, batez ere, eta haurrekin eta nerabeekin

lotura zuzena duten sektoreetako adituek hartu zuten hitza, eta ba-
koitzak bere esparruan oinarrituta egin zuen berba. Kike Amonarriz,
Iñaki Eizmendi, Koikili Lertxundi, Jose Mari Agirretxe Porrotx, Lorea
Agirre eta Iñaki Arrutik azaldu zituzten ume eta nerabeen euskararen
erabileran eragiteko estrategia posibleak. Besteak beste, Udalaren
zeregina zein den azaldu zuten, gurasoen papera zein izan behar
den, eta kirol elkarteek zer egin dezaketen umeek euskara gehiago
erabili dezaten.

Azkenik, Naiara Martin Elgoibarko Izarrako aisialdi saileko ardu-
radunak *Gurean Bai* proiektuaren berri eman zuen. Elgoibarko zaz-
pi eragilerekin sinatu dute hitzarmena, eta eskola orduz kanpoko
eragileengan eragiten hasiko dira, haiek ume eta gazteengan eragin
dezaten.



NAIARA MARTIN

Elgoibarko Izarrako aisialdi saileko arduraduna

“Eskola orduz kanpo lanean ari diren eragileengan eragin nahi dugu, haiek ume eta gazteengan eragin dezaten”

Zer da ‘Gurean Bai’ proiektua?

Eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera areagotzeko proiektua da. 7tik 22 urtera arteko ume eta gazteengan eragin nahi dugu, baina ez dugu zuzenean haiekin lan egingo, baizik eta jarduerak gidatzen dituzten begiraleekin. Eskola orduz kanpoko eragileengan eragin nahi dugu, haiek ume eta gazteengan eragin dezaten. Hau da, euskal hiztunak diren begiraleei estrategiak emango dizkiegu erakutsi behar duten hori euskaraz erakutsi dezaten. Adibidez, eskubaloiaren jokatzeko irakasteaz gain, euskaraz egin dezaketela konturatu behar dira. Badakigu klubek entrenatzaileak aurkitzeko zailtasunak dituztela eta euskaldunak aurkitzea ere zailagoa izango dela, baina horretan laguntzen saiatuko gara.

Zer dela-eta jarri duzue martxan?

Elgoibarko Izarrak 2014-2016 urteetako plan estrategikoa egin zuen iaz, eta hori prestatzen ari ginela gogoeta bat egin genuen. Konturatu ginen orain arte landu izan ditugun proiektu guztiak jarreretan eragiteko proiektuak izan direla, eta konturatu gara baita ere jarrerak berez ez dakarrela erabilera. Hau da, euskararekiko jarrera positiboa dute ume eta nerabeek, baina ez dute gehiago erabiltzen. Hortaz, erabilera sustatzeko haien errealitatea aldatu behar dugula pentsatu genuen.

Zein da errealitate hori?

Gehienak gurasoekin bizi dira familian, eta guraso horiek eragile bihurtzeko proiektu bat ere badaukagu. Horrez gain, eskolara joaten dira, D ereduan ikasten dute, eta ezagutzen ikastetxeek egiten dute euren lana. Eta azkenik, eskola orduz kanpoko jardueretan ordu asko ematen dituzte guztiak. Arrue ikerketaren arabera, eskola orduz kanpoko jardueretan %21ek erabiltzen dute euskara LH4. mailan, eta DBH2an

aldiz, %12koa da erabilera hori. Tendentzia hori ikusita, argi ikusi genuen esparru horretan eragin behar genuela. Udalak ere diagnosi berbera jaso du Euskara Biziberritzeko Planean, eta beste hainbat eragile ere bat datoz eskola orduz kanpoko eragileak euskaldundu behar direla esaten dugunean.

Zergatik eskola orduz kanpoko eragileak?

Ume pila bat ibiltzen direlako, eta gainera, borondatez ematen dutelako izena; beraz, jarrera positiboarekin joaten dira. Gainera arduradun batek gidatzen ditu saio horiek, eta uste dugu ekintza bera dinamizatzen duen moduan, hizkuntzaren erabilera ere dinamizatu dezakeela. Pertsona horiek gainera, umeentzako erreferente izaten dira, eta erreferente euskaldunak izatea oso garrantzitsua da erabilera areagotzeko.

Zeren arabera aukeratu dituzue proiektuan parte hartuko duten eragileak?

Bi aldagai izan ditugu kontuan: batetik, ume kopurua eta ekitzen maiztasuna, eta bestetik, erakundeak egitura sendoa izatea. Horiek kontuan izanda, zazpi eragilerekin hasiko gara lanean.

Hitzarmengintza bidez ekin diozue lanari.

Bai. Ez genuen nahi Elgoibarko Izarraren lan metodologia beste elkarteetan txertatzea, baizik eta bi eragileen arteko akordioak onartzea. Bi eragileren artean zehaztuko dira helburuak eta estrategiak. Udala izango da proiektuaren babeslea, eta harekin ere hitzarmena sinatu dugu.

Nola neurtuko dituzue emaitzak?

Ikasturteka egingo dugu proiektuaren jarraipena, eta emaitza horien arabera hartuko ditugu aurrera jarraitzeko neurriak.



Xabier Muriel (Bpxport), Ramon Mujika (Kirol Patronatua), Ion Sanchez (Sanlo) Imanol Garaizabal (musika eskola) eta Naiara Martin (Elgoibarko Izarra).

SINATZAILEAK

- Udal Kirol Patronatua
- Bpxport (Igeriketa eskola)
- Eskola Kirola (Txintxurreta K.Z)
- Sanlo E.K.T
- Elgoibar K.E
- Biraka Dantza Eskola
- Ignazio Bereziartua Musika eta

ALAIN ZULAIKA

‘Niala’ magoa

**Alain Zulaika elgoibartar gaztea ‘Niala’ magoa da kape-
ra jantzi eta magia-maleta soinean hartzen duenean. 14
urte ditu, eta orain dela hiru hasi zen magiaren mun-
duan. Magiaz berba egiteaz gain, hainbat truko egin diz-
kigu BARRENEN eta aho zabalik utzi ditu erredakziokoak.**

**“Mago batek
sekula ez ditu
bere trukoak
azaltzen”**

Nola iritsi zinen magiaren mundura?

11 urte nituela udalekuetara joan nahi nuen, eta ez nekien nora joan. Aukera desberdinak begiratzen ibili nintzen, eta magia-udaleku bat aurkitu nuen, Bizkaian, Butroiko gazteluaren aldamenean. Interesantea iruditu zitzaidan, eta han eman nuen izena.

Zertan datza magia udaleku bat?

ETBn ezaguna egin zen Oliver magoak zuzentzen du udalekua. Egutero bi-hiru ordu ematen genituen magia ikasten, eta horrez gain, hainbat mago etortzen ziren hara euren ikuskizunak egitera. Bi aste egin nituen han, eta magiarekin guztiz engantxatuta itzuli nintzen etxera. Iaz saiatu nintzen berriz joaten, baina bertan behera geratu zenez, ezin izan nintzen joan. Aurtengo udan egon naiz berriro.

Udalekua amaitu ostean, magiarekin harremanetan jarraitu zenuen?

Bai. Etxean hasi nintzen magia praktikatzan. Magia egiteko materialarekin sartzan naiz logelan, eta Interneten dauden bideoak erabiltzen ditut ikasteko. Horrez aparte, asteazkenero Bilbora joaten naiz *Fabrica de magos* deitzen den eskolara, eta beste sei magorekin batera ikasten dut magia. Daukadan denbora libre guztia magiari eskaintzen diot.

Zein motatako trukoak gustatzen zaizkizu gehien?

Txanponekin lan egitea gustatzen zait gehien. Asko kostatzen zait, egia esan, baina hori da nire gustukoena. Urrutiko magia egitea ere ez da erraza, hau da, ikuslea eszenatokitik urrun dagoenean ezin da edozein truko egin, eta distantzia horrek ere egoera zaildu egiten du.

Magian hasi nahi zenuela esan zenienean, nola hartu zuten etxeok?



Hasieran pixkat harrituta, baina orain gustatzen zaie. Eurak ere harrituta geratzen dira trukoekin. Truko gehienak anaiarekin lantzen ditut. Bera da nire laguntzaile onena, eta berarekin praktikatzan dut, baina anaiari ere ez dizkiot trukoak kontatzen. Trukoren bat edo beste harripatu izan dizkit, baina mago batek sekula ez ditu bere trukoak azaltzen.

Jendaurreko emanaldietan nola moldatzen zara?

Udalekuak amaitu eta ia urtebetera egin nuen jendaurrean lehen emanaldia. Nire anaiaren urtebetetze ospakizunean izan zen. Tantaka tabernan egin zuten gonbitea, eta han egin nituen truko batzuk. Hurrengo urtean berriz animatu nintzen, eta ordutik egin izan ditut beste batzuk. Ilunpe tabernan, Maalan, Sallobenten, Deban, Mendaron... Egia esan, jendaurreko emanaldia hasi aurretik urduri egoten naiz, baina saioa aurrera doan heinean, lasaitzen naiz.

Gertatu izan zaizu trukoren bat gaizki iritetea?

Bai, baina magoak beti dauzkagu horrelakoak konpontzeko baliabideak.

Gustuko duzun magoren bat?

Juan Tamariz da onena, nire ustez. Jorge Blas eta Marcelo Insua ere gustatzen zaizkit.

Hemendik aurrera zer asmo daukazazu?

Gaboneri begira gustatuko litzaidake ospitalean dauden umeei edo zailtasun egoeran daudenei trukoren batzuk egitea, irribarre bat eragin eta opari moduko bat egiteko. Eta etorkizunari begira gustatuko litzaidake magiaz bitiztea, baina zaila izango da.

Arazo eta oztopo guztien gainetik, euskal komunitateak mendez mende erakutsi du euskalduna izateko nahia, eta horregatik iraun dugu

Xamar dibulgatzaile nafarra bidelagun hartuta, gure hizkuntzaren historia ikusi eta ikasi dugu Euskara Jendea ikastaroa egin dugun 42 lagunok. Ikastaroan parte hartu duen batek aitortu duen moduan: “Gure historiaren gainean nituen hainbat uste, ustelak direla ikusteko balio izan du ikastaroak”.



Euskaldunok geure burua hobeto ezagutzeko egindako lana da *Euskara Jendea* bideo-sorta, eta sei bideo horietan jasotako garrantzitsuen jendearen artean zabaltzeko antolatu dugu ikastaroa Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak.

Gauza asko entzun, ikusi eta ikasi dugu ikastaroan, baina badira hiru ideia euskararen eta euskaldunon historian azpimarratu nahi ditugunak:

a) Euskaldunok ez gara sekula isolatuta egon. Gure herria paso-tokia izan da beti, eta makina bat herriren eta kulturen ondoren bizi izan gara; herri-kultura horietara moldatu gara, baina gure jatorrizko hizkuntza baztertu gabe.

b) Euskararen eta Euskal Herriaren historia jarraiduraren (tradizioa) eta irekiduraren (modernitatea) arteko etengabeko dialektika izan da. Beti eutsi diogu tradizioari, baina ingurutik zetorkigunari atek itxi gabe.

c) Mundu honetan gaudenetik, mendez mende, hizkuntza izan da gure komunitateak bere burua definitzeko hartu duen irizpidea. Komunitateak sortzeko hainbat irizpide egon daitezke, baina, gure kasuan, euskara eta euskal jendea dira Euskal Herria ardazten duten elementuak.

Xalbador bertsolari ezagunaren biloba den Amaia Airek lanaren amaieran dioen moduan, euskaldunok askotan pentsatu izan dugu gure bizitza sinpleagoa eta erosoago litzatekeela espainiar edo frantses izango bagina, baina euskaldun sortu ginen, eta, nahigabe guztien gainetik, horrek gaitu betetzen eta munduan kokatzen. Euskaldunok, negarra maiz begietan izan arren, irria eta euskara behar ditugu ezpainetan aurrera egiteko.

Euskaldunona ez da izan isolatuta edo bakartuta egon den herria

- Burutik kendu behar dugu euskararen herria isolatuta egon delako irauin duen topikoa. Gure herria paso-tokia izan da beti, eta makina bat herriren eta kulturen ondoan bizi izan gara; herri-kultura horietara moldatu gara, baina gure jatorrizko hizkuntza baztertu gabe.
- Gure herriaren izaera hizkuntzari lotuta dagoelako irauin dugu bizirik; euskaldunak izan nahi dugulako. Euskarak egiten gaitu euskaldun, eta hizkuntza da gure herriaren arima. Euskara gu gara: gu gara euskara.
- Noizkoak gara euskara eta euskaldunok? Ez dakigu, baina badirudi Paleolitoan zegoen herri baten ondorengokak garela. Bestalde, adituek ez dute arazorik hitz batzuen sustraiak Neolitoan bizirik zeudela onartzeko. Joxe Migel Barandiaran antropologoaren ustez, orain dela 5.000 urte hemen bazen euskara.
- Nondik gatoz euskaldunok? Xamarren esanetan, gizakia Afrikan sortu bazen, eta denok handik bagatoz, bi aukera ikusten ditu hizkuntzak sortzeko orduan: bat, hizkuntza bakarra zegoen hasiera batean, eta hura zabaldu zen mundu osora. Eta bi, gizakia munduan zehar zabaldu zenean, leku askotan, eta aldi berean, sortu ziren hizkuntzak.
- Duela 10.000 urte, Neolitoan, ehiztariak eta harrapariak izatetik, nekazariak eta abeltzainak izatera pasa ziren. Gure kulturaren oinarriak eta mundu-ikuskera ere orduan finkatu ziren; hildakoen lurperatzeak dira horren lekuko fidelenak. Euskaldunek, eta artzainek, bereziki, K.o. 1000-1.500 urtera arte eutsi zioten lurperatze haiei, kristautasuna gurean ezarri zen arte.
- Herri indoeuoparren etorreraren aurretik, hizkuntzen paisaia ez da argia, baina badakigu garai hartan Iberiar penintsulan bazirela beste hiru hizkuntza, euskararekin batera: zelta, iberiera eta tartesiera.



Euskaldunok ere erromatartu ginen, baina herriaren izena eta hizkuntza gordetzen jakin genuen

- Ez da egia euskaldunak isolaturik eta konkistatu gabe egon ginenik; Erromako Inperioak gurean eragina izan zuen, eta handia gainera. Gure lurraldera K.a. II. mendean iritsi ziren erromatarrak, baina, zoritxarrez, ez zuten gure herrietan hitz egiten zen hizkuntzaren gaineko aipamenik jaso.
- Erromatarrak gurera iritsi zirenean, hainbat herriekin egin zuten topo. Karistiarrak, Bizkaian eta Araban; autrigoiak, Bizkaiko mendebaldean; barduliarrak, Gipuzkoan eta Arabako zati batean; baskoiak, Nafarroan nagusiki; eta, azkenik, akitaniarrek, Pirinioen ipar aldean.
- *Lurralde bat = hizkuntza bat* binomioa ez zen beti gertatzen, eta baskoien lurraldean, adibidez, hiru hizkuntza zeuden: euskara, zelta eta iberiera. Zergatik ziren, orduan, baskoiak? Ez dakigu, baina bada teoria bat *vascon, vasco eta euskara* hitzek errobera dutela dioena (-sk-), eta teoria horren arabera, hirurak euskarari lotuta egon daitezke.
- Garai hartan ez zegoen euskararen muga zehatzik, baina badakigu euskararen lurraldea oso zabala zela. Iparraldean, Garona ibaitik hasi eta itsasoraino. Hegoaldean, berriz, dokumentuak badaude baskoien lurraldean, eta baita Lergan, Zaragoza eta Huesca aldean ere. Euskal izen gehienak, hala ere, Pirinio erdialdeko haranean dagoen herri batean azaldu dira.
- Inperioaren mendeko lurralde guztietan ezarri zen latina, eta horrek euskarari ere eragin zion. Hizkuntzaren eremu guztietara zabaldu zen latinaren eragina, baina nabariena lexikoan izan zen, hitzetan (baba, leka, piku, olio, tipula, golde, ortu, dolare ...).
- III. mendean hasi zen Erroma ahultzen, baina, ordurako, euskara-jendea erromatarturik zegoen. Bizimodua, neurri batean, erromatarren erakoa bazen ere, euskararen herriak ez ziren guztiz latinizatu. Europan izan den inperiorik handienak sortutako zibilizazioaren ondorioz hizkuntza ugari desagertu zen, baina euskarak eta euskaldunek bizirik irauin zuten.



Erdi Aroan euskara zen nagusi gure lurraldean, inguruan hainbat hizkuntza izan arren

Ezarrিতako muga eta lege guztien gainetik, Aro Modernoan ere euskaldunak izateko nahia erakutsi zuen euskal jendeak

■ XII. mendean, Donejakue Bidea egiten ziharduen fraide batek, Lizarran eman zituen egun batzuk, eta, besteak beste, nafarrak berbetan zihardutenean “zaunka ari direla ematen du; hain da basa beraien hizkuntza”. Euskaraz ziharduten.

■ Erdi Aroan latinak hizkuntza kultua izaten jarraitu zuen, baina herriak euskaraz hitz egiten zuen, nahiz eta idatzi ez. Lurperatze-errituak, adibidez, euskaraz izaten ziren osorik, baina apaizak eginiko otoitzak eta oroimen idatziak latinez ziren.

■ Garai hartan, euskarak lurralde zabalak galdu zituen Akitaniako lautadan eta ekialdean, baina Iberiar penintsulan, euskara hegoaldeko zenbait tokitara zabaldu zen: Errioxara, Burgosera, edo Soriana, adibidez. Eta Pirinioetan eta Huesca hirian ere hitz egiten zen.

■ XII.-XIII. mendeetako Nafarroan dozena erdi baino hizkuntza gehiago entzun zitezkeen, baina euskara zen gehien egiten dena. Ez dugu pentsatu behar, gainera, hizkuntza eta kulturen arteko elkarbizitza gatazkarik gabea zenik.

■ Latinak bi aldaera zituen: idazteko erabiltzen zena, eta hitzun arruntek egiten zutena. Hitzun arruntek egiten zutena garatzen joan zen, eta X. menderako hizkuntza erromanikoak sortu ziren. Euskaren inguruan lau erromantze zeuden: gaskoia, aragoiera, erromantze nafarra, eta gaztelania.

■ Ordura arte euskaldun hutsa izatea ez zen arazoa, baina egoera diglosikoak erdara baloratu eta haren ezagutza bultzatu zuen, eta euskara eginkizun mugatuetara zokoratu zuen. Orduan hasi zen euskal hitzunen komunitatea desegituratzen.

■ Euskara ez zen Euskal Herrian bakarrik entzuten. Euskal arrantzaleek hamarkadak zeramatzaten Ternua aldeko itsasoetan nabigatzen, eta urrutiko lurralde haietan ere bazen trukerako eta harremanetarako hizkuntza.

■ XVI. mendearen hasieran, euskaraz jakitea oso garrantzitsua zen. 1530.ean, adibidez, Iruñerako gotzain elebiduna eskatu zuten. Elizak herri euskaldunak eta erdaldunak bereizten zituen apaiz euskaldunak nora bidali jakiteko. 1587an, Nafarroako 451 herri ziren *bascongadoak* (euskaldunak); erdaldunak, berriz, 58 ziren. Hizkuntzaren muga Tafalla inguruan zegoen, eta Nafarroa Garaian euskara ohiko hizkuntza zen.

■ Aro Modernoaren hasieran, egoera aldatzen hasi zen, eta Gasteizen, Arabako hegoaldeko herri batzuetan eta Nafarroako eta ekialdeko beste herri batzuetan, jendea euskaldun huts izatek erdalduna izatera pasa zen, kasu askotan. Galera-prozesua goi-mailako gizarte-taldeetan eta hiriburuetan hasi zen.

■ Baina Iparraldean euskara bere horretan mantendu zen XX. mendera arte. Bernart Etxepare erretore garazitarrak, adibidez, 1545ean euskarazko lehen liburua argitaratu zuen: *Linguae Vasconum Primitiae*. Gainera, Etxepare bera izan zen euskaren normalizazioa eskatzen lehena, “Euskara, jalgi hadi plazara!” aldarrikapenarekin.

■ XVII. mendean Orogen Eskolak sortu ziren Iparraldean. Elizak bultzatu zituen, eta lehen helburua kristau-doktrina irakastea bazen ere, oinarrizkoak ziren hiru gaitasun ere lantzen ziren: irakurtzekoa, idaztekoa eta zenbatzekoa. Sarako Eskola ere Iparraldean sortu zen, eta idazle ezagunena Pedro Agerre *Axular* izan zen, 1643an argitaratu zuen *Gero* liburuarekin.

■ 1789an, baina, Frantziako Iraultza piztu zen, eta beste hizkuntza guztien gainetik frantsesa inposatu zen. Espainian ere antzeko dinamikari ekin zitzaion; Frantzian abiatutako estatu bat, hizkuntza bat ideologia Hegoaldean ere aplikatzen hasi ziren.

■ Euskaldunok, hala ere, eutsi egin genion gure hizkuntzari lurraldearen parterik handienean. Horren adibide dugu Nafarroako Artaxoa herria. 1790ean, herriko auziak konpontzeko, bigarren idazkari baten premia izan zuten, eta bertako Udalak euskaraz zekien idazkaria hartzeko eskaria egin zuen.



Etsipenak jota gerren artetik bizirik irtetea lortu zuten euskaldunak

- XIX. mendean euskarak atzerakada edo galera handia jasan zuen. Nafarroaren erdialdean, edo Araban, orduan bizi izan zuten euskararen atzerakadarik handiena, eta Iruñetik beherako lurraldeetan euskara galtzen hasi zen.
- Anton Abadia irlandar filologoak lore-jokoak sortu zituen, euskaldunen izaera eta nortasuna goratzeko eta babesteko. Abadiaren ustez, euskararen galera-prozesua eteteko nahitaezkoa zen euskaldunen harrotasuna antolatzen hastea. Elgoibarren 1907an antolatu ziren lore-jokoak.
- XIX. mendean eman zen Bigarren Industria Iraultzak, besteak beste, etorkinak ekarri zituen; Bizkaira, batez ere. Etorkinak ia denak erdaldunak izanik, bertako euskal hizkuntza-komunitatea desorekatzeko faktorea izan zen immigrazioa.
- Euskarazko aldizkarietara dagokionez, lehen ahalegina *Uscal Herrico Gasetara* izan zen, 1848an, baina bi ale bakarrik argitaratu ziren. XIX. mendearen amaieran, berriz, *Eskualduna* astekaria sortu zen Baionan. Hegoaldean, berriz, *Argia* astekaria 1921ean sortu zen, eta *Eguna* egunkaria, 1936an. Militar frankistek biak itxiarazi zituzten.
- XIX. mendearen amaieran, abertzaletasuna indarra hartzen hasi zen Sabino Arana politikari bizkaitarraren eskutik. Abertzaletasunak hizkuntzari begiratzeko modu berria ekarri zuen. Aranak euskaratik erdal hitzak kendu eta berba berriak asmatu zituen, baina haren benetako kezka euskararen estatusa zen.
- 1918. urtean Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ziren, eta 1926an Euskaltzaleak elkarteak. Elkarte haren asmo bakarra euskararen promozioan sustapen-jarduerak antolatzea zen; 1914an, adibidez, lehen ikastola ireki zen Donostian.
- Baina XX. mendearen lehen bi hamarkadetan lorotutako euskalgintza hamaika zatitan apurtu zen, bat-batean, 1936ko Gerra piztu zenean. Espainiako militarrek estatu-kolpea jo ondoren, Franco buru zen militarren lehen debekuak iritsi ziren; euskara erabiltzea debekatu zuten, besteak beste. Debekatuta zegoen euskara erabiltzea kalean, elizan, eskritura publikoetan, aldizkarietan eta enpresetako barne-dokumentuetan, hoteletan, haurren izenetan, zinemetan ...

Euskaldun sortu ginen, eta, nahigabe guztien gainetik, horrek gaitu betetzen

- Etsita eta mutu geratu zen euskal jendea Francoren diktadurara gure gainera jausi zenean. Erdara gero eta toki zabalagoa hartzen hasi zen, euskararen kaltetan. Hala ere, 1960ko hamarkadan, berriro esnatu zen euskaldunak izateko nahia.
- Jarraidura eta irekidura. Jarraidura, jaso duguna hartu, hori garatu eta hurrengo belaunaldiei transmititzeko sena da. Irekidura, berriz, garai eta egoera politiko, ekonomiko eta kultural berriek dakarkigutenari irekiak egotea da. Euskararen eta Euskal Herriaren historia jarraiduraren eta irekiduraren arteko etengabe-ko dialektika da.
- 1965ean, adibidez, Ez Dok Amairu kultura-mugimendua sortu zen, eta mugimendu horrek berehala ulertu zuen tradizioari eutsi egin behar zitzaioela, baina ez tradiziokeria eta folklore hutsa egiteko, baizik eta hori dena gaurkotzeko. Bertsolaritzan ere tradizioa hartu zuten, baina bertsolaritza ez zuten ulertzen iraute huts modura, sortzeko edo bizitzeko kultura-modu bezala baizik.
- 36ko Gerra amaitu ondoren zabaldu zen ikastolen hazia, klandestinitatean, baina benetako eztanda 60ko hamarkadan izan zen. Orduko gurasoek euskara hegemonikoa izango zuen hezkuntza-eredua sortu zuten hutsetik hasita. 1968an, bestalde, Euskaltzaindiak euskara batua sortu zuen Arantzazun.
- XX. mendeko azken bi hamarkadetan herri-ekimenari esker sortutako hainbat proiektu daukagu: *Euskaldunon Egunkaria*, *Euskal Herrian Euskaraz*, bertsolaritza, literatura, musika... 1985ean, berriz, *Arrasate Euskaldun Dezagun* (AED) euskara-elkatea sortu zen, eta haren arrastoan sortu ziren antzeko elkar-tekak. Elgoibarko Izarra, tartean, gurea 1963an sortu bazen ere.
- Kopuruei dagokienez, pentsaezina zen egoeran gaude, baina maila kualitatiboan huts egiten hasi gara. Inoizko hiztun-kopururik altuena izateak ez du esan nahi hizkuntza-komunitatea ondo dagoenik. Hala ere, ikaragarria da gure komunitateak egingandako lana, eta baita emaitzen parte bat ere, eta horrek ematen digun pozak eta harrotasunak izan behar dute aurrera egiteko energia-iturri. Izan ere, euskaldun sortu ginen, eta, nahigabe guztien gainetik, horrek gaitu betetzen.



EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



**Gipuzkoako komertzio txikia.
Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.**

Baserriko jenero onena, musika eta puntako herri-kirol saioa izango dira Kontzezio Azoka eguneko osagai nagusiak

Antzinako zerratokietan egiten zen lanari buruzko erakusketa ere egongo da aurten

Astlehenean da Kontzezio Eguna, eta horren harira, urteroko azoka egingo dute bihar Mendaron. Egun osoko egitarauak jantziko du azoka. 9:30ean zabalduko dute, eta jateko kontutuan hamabost postu izango dira. Barazkiak, ogia, gozoak, ezta, mermeladak... denetarik dastatu eta erosteko aukera izango da. Hamabost postu horietatik bat Mendaroko Atxuri baserrikoena izango da. Ganaduak, berriz, zortzi baserrikoak izango dira: Sahatzu, Sarube, Ibiri, Garate, Etxabe, Agarre-Txiki, Goikola eta Aozar.

Urteroko ekintzak izango dira egunear zehar: sagardo lehiaketa, herriko trikitia eskolako dantza-saioa, Izetako gurdian ibilaldia egiteko aukera, sari-banaketa [baserri-tar arropa dotoreenari eta Mendaroko baso edo mendi sail garbienari dagokiona] eta herri-kirol saioa arratsaldean. Berrikuntza, moduan, baina, antzinako zerratokian egiten zuten lanaren gaineko erakusketa ere izango da aurten. Egitarau osoa Agendan daukazue ikusgai.

Maite Maiora omenduko du Udalak, Mendaro herriaren izena nazioartean zabaltzeagatik

Handia egin du Maite Maiorak aurten, eta lortutako guztiagatik eta Mendaroko herriaren izena nazioartean zabaltzeagatik omenduko du Mendaroko Udalak bihar. Arratsaldean izango da, frontoian, herri kirol saioa hasi aurretioxan, 18:30ak aldera. Mendi lasterketako Espainiako txapelduna izendatu da aurten eta bigarren egin du Munduko Kopan, Italian Limone Extreme mendiko lasterketa irabazita. Euskal Herrian bertan, hainbat garaipen eskuratu ditu, baina Zegama-Aizkorri maratoni entzute-tsean egin zuen hirugarren postua izan da beharbada entzute handienekoa.



Arg.: fotosu

KONTZEZIO EGYNEKO AZOKA

ABENDYAK 6



Mendaroko Udala

Mendaroko Baserriak

KiLi

Idoia Etxeberria harri-jasotzailea marka berria ezartzen saiatuko da 100 kiloko kopa harriarekin

Bost minutuko bi txanda egingo ditu Etxeberriak

Herri kirol saioak beteko du zapatu arratsaldea Mendaron. Bost kirolari arituko dira, nor bere modalitatean, baina Idoia Etxeberria harri-jasotzaile oriotarra ageri da kartelburuan. Sasoi betean dago Etxeberria eta horren erakusgarri da hogeita lau orduren barruan bi marka ezartzen saiatuko dela: bata, gaur, Orion, eta bestea, bihar, Mendaron, 100 kiloko kopa harriarekin. Bost minutuko bi txanda egingo ditu. Etxeberriaz gain, Jexux Mari Iruretagoiena *Izeta III.* eta Hodei Iruretagoiena *Izeta IV.* ere ariko dira harriarekin, eta aizkoran, bi txapeldun handi lanean ikusteko aukera izango da: Aitzol Atutxa Euskadiko txapelduna eta Ugaitz Mugertza II. mailako txapeldunordea. Ohi legez, frontoian izango da herri kirol saioa, 18:30etik aurrera.

IDOIA ETXEBERRIA Harri-jasotzailea



140 kiloko harria jaso zuen lehen emakumea izan zen Idoia Etxeberria (Orio, 1992), eta ordutik hainbat marka ezarri ditu. 2012an, esaterako, lau jasoaldi egin zituen 150 kiloko harri errentagulariarekin, eta aurten Euskadiko txapelketa irabazi du, bigarrenengoz.

100 kiloko koparekin marka ezarri asmoz zatoz Mendarora zapatuan, bezperan Orion beste marka bat ontzen saiatu ostean.

113 kubikoarekin hiru minutuko txanda bat egingo dut Orion, eta Mendaron, bost mi-

nutuko bi txanda 100 kiloko koparekin. Ez dute zerikusirik bata bestearekin, biak dira bereziak.

Harri handiagoekin ibilitakoa zara. Zer berezitasun du honek, 100 kiloko kopak?

Bereziak denak dira, baina bai, egia da orain arte saiatu naizela gero eta pisu gehiagoko harriak altxatzen, eta orain saiatu nahi dudala harri txikiagoekin, baina hein berean, bereziagoak direnekin. Harri hau oso da berezia niretzat, preparatzaileak [Joxe Ramon Uhanue] oparitu eta gutxira hil zelako, birus baten-gatik. Oparitu zidanean harri horren parte izan nahi zuela esan zidan, eta nahi nuke horrekin marka ezarri bere omenez.

Prestakuntza berezia eskatu dizu harri honek? Noiz hasi zinen bereziki hontarako prestatzen?

Erakustaldietan gehien erabiltzen den harria izaten da kopa, eta lanketa berezia eskatzen du, bai, baina jardundakoa naiz aurretik ere honekin lanean. Txapelketarako kubikoarekin ibili nintzen eta Orion markaren bat ezartzen saiatuko ote nintzen galdetu zidatenean ere huraxe aukeratu nuen lanerako. Mendarotik deitu zidatenean, baina, nahi nuen zerbait berria eskaini eta honekin saiatzea erabaki nuen, zor bat banekualako Joxe Ramonekin. Egia da kubikoak eta kopak teknika oso desberdina eskatzen dutela eta aldi berean biekin lanean aritzea ez dela erraza.

Hogeita lau orduren barruan bi marka ezartzen saiatuko zara. Fisikoki hori erronka handia izango da, ala?

Beste zailtasun bat bada hori, neke fisiko handia pilatzen delako. Horri aurre egiteko prestatzen jardun dut azkeneko saioetan, bereziki gerrialdialdeko muskuluak indartzen. Egia da oso entrenamendu zorrotzak izan direla, bi harriekin ibili naizelako, baina etxean ondo moldatu naiz eta espero dut plazan ere itxuran aritzea.

Zu zeu zelan zaude?

Ondo. Egunean bertan izaten da urduritasuna eta tentsioa, baina txistua jo artekoak izaten dira horiek ere. Behin epaileak txistua jotzen duenean joaten dira.

Plazan hazten zarenetakoa zarela irakurri dugu. Bat zatoz?

Bai, normalean bai. Gertatu zait plazara irten eta dena egin ezin izana, baina, bai, gehienetan gustura aritu naiz plazan.

Bizkarreko lesio batek geldi ere izan zintuen zu. Gainditu al duzu hori? Epe motzerako zeintzuk erronka dituzu?

Gainditu-edo. Urtebetez egon nintzen harriak jasotzeari utzita, bizkarrezurreko jaiotzetiko lesio bat topatu zidatelako. Giharretako muskulatura indartzen ez banuen harria utzi beharko nuela esan zidaten orduan. Horregatik, bereziki zaindu dudun kontu bat izan da hau, nik jarraituko nahi dudalako honetan eta saiatu nahi dudalako harri handiagoekin.

Euskararen aldeko oihuak hartu du abenduaren 3a

Abanduaren 3 Euskararen Nazioarteko Eguna da, eta horren harira hainbat eta hainbat ekintza antolatutatu zituzten Elgoibarren eta Mendaron. Orri honetan jaso dugu egunaren laburpena iruditan, baina argazki gehiago eta Kalegoen plazan egin zuten flash mob-aren bideoa www.barren.eus atarian duzue.



Herri Eskolakoek kalejira egin zuten.



BH Institutukoek Herriko Antzokian ospatu zuten.



Ikastolan ere ez ziren falta izan euskararen aldeko ekintzak.



Ikastolako patioan egin zuten Mendaron euskararen aldeko jaiak.



Antolakuntzako kideek euskararen aldeko manifestua irakurri zuten.



Euskaraz bizi nahi dut flash mob-ak jendez bete zuen Kalegoen plaza. (Arg.: elgoibar.org)



Euskara plazara eramán zuten hainbat eta hainbat herritarrek. (Arg.: elgoibar.org)

San Silbestre eguneko lasterketa antolatu dute Mendaron, estreinakoz

Abenduaren 31n arratsaldeko bostetan izango da



Mendaron San Silbestrea antolatu dutenek eurek antolatzen duten mendi lasterketako argazkia.

Urteko azken egunean korrika egiteko ohitura asko zabaldu da Euskal Herrian eta aurtien Mendaron ere antxixkika eginez amaitu ahal izango dute urtea, estreinakoz San Silbestreko lasterketa antolatu duelako Mendaroko Txirindulari Elkarteak urtarilaren 31rako.

Arratsalde izango da lasterketa, 17:00etan, eta bost kilometroko ibilbidea izango da egin beharrekoa: Herriko Enparantzan hasi eta Azpilgoetarantz abiatuko dira parte hartzaileak, eta han zubi bukaeran buelta eman eta Garagartzarantz abiatuko dira txaleten paretik. Garagartzatik estazioruntz hartuko dute eta handik San Jose auzora, gero berriro frontoi parera iristeko. Bi kilometro eta erdiko zirkuitu horri bi itzuli eman beharko dizkiote. Izenemateak bi euroan egingo dira, eta interesatuek badute dagoeneko horretarako aukera honako taberna hauetan: Ormolan, Uztargin, Txirristakan eta Aitzbeltzen.

Hilaren 19an zabalduko dute Elgoibarren patinatze pista

Aurtien ere patinatze pista jarriko du Elgoibarko Udalak Lekueder parkean. Abenduaren 19an zabalduko dute eta urtarilaren 6ra arte egongo da zabalik. Patinatze pista horretan bertan hockey txapelketa jokatu da abenduaren 22tik 23ra bitartean, Eskola Kirola programaren barruan. Goizez jokatu dira partidak, 9:30ean hasi eta 12:30 bitartean.



Alex Txikon eta Ekaitz Maiz.

Alex Txikon eta Ekaitz Maizen hitzaldia egunean, Herriko Antzokian

Morkaikoren mendi emanaldien zikloaren barruan, Karakorun mendikatean dauden Trango dorretan egindako eskaladen berri emango dute egunean halex Txikon eta Ekaitz Maiz mendizaleek Elgoibarren. Morkaikok eta Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenekoek elkarlanean antolatu dute hitzaldi hau, eta Herriko Antzokian izango da, 21:30etik aurrera. Trango Dorreak munduko pareta bertikal garaienak dira, eta 2.000 metroko maldak eta 90 graduko jaitsiarrik dituzte.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 0 – Bergara 3 (Haundi)
 Elgoibar 0 – Getariako Keta 1 (Erregionala)
 Aurrera 3 – Elgoibar 0 (Jubenila)
 Elgoibar 1 – Eibar 0 (Kadete A)
 Elgoibar 0 – Zumaia 1 (Kadete B)
 Elgoibar 17 – Arrasate B 0 (Lehenengo infantila)
 Sporting Herrera 1 – Elgoibar 1 (Infantil txiki)
 Zumaia 4 – Elgoibar 3 (Alebin)
 Mutriku 2 – Elgoibar 6 (Alebin)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 4 – Segorbe 0

ESKUBALDIA

Elgoibar 27 – Anaitasuna 31 8 (Sen.mut.)
 Elgoibar 31 – CD Leizaran 15 (Jub. mut.)
 Caribe Berri Legasa 28 – Bankoa 35 (Kad.mut.)
 Elgoibar 32 – Gure Auzune 21 (Kad.mut.)
 Elgoibar 21 – Aloña Mendi 21 (Kad. nes.)
 Bergara 28 – Murgil Eraikuntzak 10 (Inf. mt.)
 Aiala Zarautz 28 – Casa Astigarraga 25 (Jub.nes.)
 Aiala Zarautz 22 – Tecnifuelle 25 (Kad.nes.)
 Elgoibar 7 – Federopticos Ikus 34 (Inf.nes.)
 Elgoibar 16 – Aloña Mendi 14 (Inf.nes.)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Palaz

Lagunak 25 – Danok Bat 10 (Bigarren mailako nagusiak)

Lagunak 23 – Azkoitia 25 (Bigarren mailako nagusiak)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 6

16:30 Elgoibar – Alle Punta (Erregionala)

ESKUBALDIA (Kiroldegian)

Astelehena, 8

10:30 Astigarraga – Euskadiko katede selekzioa (kadete neskek)

12:00 Beristain – Euskadiko katedete selekzioa (Kd.mt.)

500dik gora lagun batu zituen 'Kataiak' ikuskizunak

Musika eta makina-hotsak uztartu zituzten



500 lagunetik gora batu zituen IMHko museoa Aitor Nova musikari elgoibartarrak sortu eta sustatutako *Kataiak* ikuskizun garaikideak. Museoko makinaren hotsak, sei musikariren zuzeneko musika, soinu elektronikoak eta irudiak uztartu zituzten, makina-erremintaren iragana, oraina eta etorkizuna irudikatuz. Makina-Erremintaren mendeurrenako ekitaldi programako azken ekintza izan da *Kataiak*.

Abenduaren 15ean jarriko dituzte salgai Pirritx eta Porrotxen emanaldirako sarrerak



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak urtarillaren 2an etorriko dira Elgoibarrera, eta abenduaren 15etik aurrera erosi ahal izango dira sarrerak. Ikuskizunaren bi saio eskainiko dituzte Herriko Antzokian: 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak, Kutxaren bidez jarriko dituzte salgai abenduaren 15etik aurrera; www.kutxa.net helbidean. Sarrerak 10 euro balio ditu helduentzat, eta 8 euroan eskuratu ditzakete haurrek. Gehienez lau sarrera erosi ahal izango ditu pertsona bakoitzak.

Txo, Mikmak Txikia ikuskizuna aurkeztuko dute. Txo mikmak indioa da, itsasoaren bestaldetik iritsia. Berarekin eta aitona Rokerekin plana egin dute pailazoek: Mundua aldatzeko batu dira, izan ere, Roke arotza da eta gurrezko ametsak egiten ditu esna. Plastikozko zabor-tegi bihurtzen ari da itsasoa, eta balea bat gaixorik iritsi da hondartzara. Albaloi ontzian San Juan baleontzi berria eraikiko dute, eta enbata guztien gainetik, txiribuelta emango diote munduari.

Aitor Asenjo txapelkunorde, Euskadiko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan

Euskadiko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu zuten asteburuan Pasa Donibanen, eta Aitor Asenjo elgoibartarrak bigarren egin zuten bere mailan. Nesketan, berriz, Andrea Arregik laugarren egin zuten eta Alaitz Egañak bederatzigarren.

'Potologuak' bakarriketa Herriko Antzokian


Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk *Potologuak* ikuskizuna aurkeztuko dute gaur zortzi, Herriko Antzokian. Umorea ardatz hartuta, gure gizartearen eta harremanen analisia egingo dute, bakarriketa formatoan. Sarrerak www.kutxa.net helbidean erosi daitezke, 10 eurotan (Gazte txartelarekin, 7 euro). Ikuskizuna 20:30ean hasiko da.

Korrikaren aldeko materiala salgai, AEK euskaltegian

Martxoan izango den Korrikako arropa salgai dago AEK euskaltegian. Intersatuak 12:00etatik 13:00etara edo 17:00etatik 18:00etara joan daitezke AEK-k Aita Agirren duen lokalera, astelehenetik ostiralera. Informazio gehiagorako deitu 607 601 423 zenbakira, edo idatzi elgoibar@aeak.org helbidera.

Uxue Mancisidorrek irabazi du Elgoibarko Izarraren esaldi lehiaketa

DBH eta Batxilergoko ikasleentzako esaldi lehiaketa antolatu zuen Elgoibarko Izarrak Euskararen Egunaren harira, eta Uxue Mancisidorrek irabazi du. Nire ahotik zure belarrira izan da esaldi irabazlea. Elkarteko arduradunek kamisetak atara dituzte lema horrekin, eta Euskararen Egunean jantzi zituzten gazteek.



30 koadro jarriko ditu ikusgai Gemma Monrealek Kultur Etxean

Hilaren 20ra arte egongo da erakusketa zabalik



Gemma Monreal margolari elgoibartarrak erakusketa zabalduko du gaur Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Monrealek berak aurreratu du 30 lan jarriko dituela erakusketa, horietatik erdiak berriak, sekula aurrez erakutsi gabeak. Kultura Sailaren laguntzaz antolatu du erakusketa, eta hilaren 20ra arte egongo da zabalik, asteleheneetik zapatu-
ra, 18:30etik 20:30era bitartean.

‘Olentzero eta zaku magikoa’ ikuskizuna taularatuko dute hilaren 14an Herriko Antzokian



Olentzero eta zaku magikoa familia antzerkia eskainiko du Kalika Produzioak-ek abenduaren 14an, Elgoibarko Herriko Antzokian. Antzezlanean, Olentzerok bere zaku magikoa galtzen du, eta ondorioz, asko zailduko zaio Eguberrietako oparien banaketa. Bila ari dela, hainbat pertsonaiekin topatuko dira basoan Olentzero eta Mari Domingi: Argitxo, Astotxo, Haritza, Basajauna eta Sorgina Pirulina gaiztoa, besteak beste. 16:30ean hasiko da saioa, eta sarrerak Herriko Antzokiko lehiatilan bertan eskuratu ahal izango dira.

Ekintzaz betea dator Jubilatuena Astea

Abenduaren 10ean hasiko dute euren astea Elgoibarko jubilatuek, txokolate beroaren dastaketarekin (18:00) eta hilaren 15ean bukatuko dute Gelatxo orkestraren dantzaldiarekin (18:00-21:30). Tartean, baina, beste hainbat ekintza ere egingo dituzte, besteak beste honako hauek: Eguberrietako otarren zozketa, eguaztenean; 80 urtez gorakoa omentzeko bazkaria, eguenean; eta aurtentzen hildako jubilatuz guztien omenezko meza domekan, 12:00etan.

Zuhaitz Gurrutxagak telebista saio berria aurkeztuko du Mikel Pagadirekin batera

Herri txiki, infernu handi telebista saio berria iragarri du Euskal Telebistak, eta Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarra izango da aurkezteetako bat. Mikel Pagadi umoregilearekin batera aurkeztuko du aiaastarrak saioa.

Mendaroko ipuin lehiaketarako sariak hilaren 24an banatuko dituzte

Mendaroko Udalak jakinarazi du amaitu dela ipuin lehiaketara lanak aurkezteko epea. Debarbarrenako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako lehiaketa da, eta sariak abenduaren 24an banatuko dituzte.

Euskarazko produktuen katalogoa banatuko du Elgoibarko Udalak

Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria kaleratu du Elgoibarko Udalak, Euskal Herriko 100 bat udal eta mankomunitateetako Euskara Zerbitzuekin batera, eta datozen egunetan 1.700 ale banatuko dituzte Elgoibarren. Gehienak herriko ikastetxeetan banatuko ditu, baina euskaltegietan, liburutegian eta jostailu eta liburu dendetan ere eskuratu ahal izango dira. Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu katalogoaren aurtengo edizioak. Katalogoa sarean kontsultatzeko bi aukera daude: www.katalogoa.org webgunean edota Elgoibarko Udalaren www.elgoibar.org webgunean, hain zuzen, Euskara Sailaren atalean.

Jarri ezazu zure publizitatea
eguberrietako alean

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B

BARREN
astekarian
943 743 704



ETXEBIZITZAK

- Pisua alokairuan Santa Ana kalean. Bi logela, terraza handia, egongela. Altzariek. Igogailua eta ganbara ditu. ☎ **669 598 769**
- Apartamentu dotorea alokagai, Mendaron, frontoi alboan. Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. Altzariek. ☎ **652 718 426 (15:00etatik aurrera)**

LANA

ESKAERA

- Gizonezkoa eskaintzen da igeltsero edo pintore lanetarako. Ordu-tegi malgua. ☎ **602 850 239**
- Emakumea lanerako prest. Interna. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. ☎ **631 141 183**
- Emakumea etxeko lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Gidabaimenarekin. ☎ **631 343 232**

- Emakumea edozein lan egiteko prest: garbiketa lanak, umeak edo adinekoak zaindu... Interna edo orduka. ☎ **632 767 696**
- Emakumea lan bila: etxeak garbitu eta umeak edo adinekoak zainduko nituzke. Ordu-tegi malgua. ☎ **943 748 899 / 685 724 861**
- Pertsona bat eskaintzen da lanerako. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka. ☎ **628 014 327**
- Emakumea lan bila: Esperientzia handia tabernetan lanean eta adinekoak zaintzen. ☎ **632 598 619**

IBILGAILUAK

- Seat Leon autoa salgai. Sport, TDI, 1.9, 110cv. 2005. urtekoa. Urdina. 5.000 euro. Prezioa negoziatzeko prest. ☎ **688 697 514**

PARTIKULARRAK

- Unibertsitateko sarbide proba prestatzeko klase partikularrak hartuko nituzke, bereziki, gaztelania eta matematika eskolak. ☎ **617 053 329**
- Klase partikularrak ematen ditu: Batxilergoko matematika, DBH, LH eta kontabilitatea, ekonomia... ☎ **666 042 710**

BESTELAKOAK

- Bigarren eskuko autoa hartuko nuke opari. Transferentzia gastuak neuk ordainduko nituzke. ☎ **602 850 239**
- Norbaitek soberan baldin badauka, gustura hartuko nuke telebista bat. ☎ **603 221 309**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Etxebizitza erosteko mailegua eskatzeko, abal-emaile izatea eskatu diote nire atari. Horretarako, bere etxearen eskriturak eskatu dizkiote. Etxebizitza hori gurasoek erosi zuten irabazpidezko ondasunetan, baina nire ama duela hamar urte hil zen. Oraingoz nire aitak ez du testamenturik egin eta ni naiz oinordeko bakarra. Eragotzi dezaket etxe hori abal gisa ematea? Bereiztu behar dugu abalatzea eta hipotekatzea. **Abalatzea: Abalatzearen kasuan, zure aita mailegu-hartzailea bezain erantzule da mailegu horrena. Erreziboren bat ordaintzen ez bada, banketxeak zure aitari eskatzea izango du eta ordaintzen ez badu, zor hori kobratzeko behar beste ondasun enbargatu ahal izango dio. **Hipotekatzea:** Hipotekatzeak esan nahi du mailegua eskatu duen horrek bere etxearekin erantzungo diola zor dituen erreziboei, eta beraz, erreziboren bat zor balu etxe hori enkante publikora aterako lukete, zor duena kobratzeko. Zor duena baino garestiago salduko balu, gelditzen den dirua etxe-jabearentzat izango litzateke eta bankua ez litzateke abal-emailearengana joango kontu-eske, baina etxea saldu arren zor hori ordaintzeko beste izango ez balu, abal-emailearen ondasunak ere arriskuan leudeke. Etxea irabazpidezko ondasuna bazen eta zu bazara oinordeko bakarra, etxe hori ezin da hipotekatu zuk hipoteka-eskritura sinatu ezean, baina zure aitak etxea abal gisa emateko aukera dauka, zure onespina izan ez arren.**

AHOLKUA: Banketxeak abal-emailearen ondasun guztien kontu eskatu ohi ditu, kaudimenik ba ote duen ikusteko.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Aimar**, atzo urtebete egin zenuelako! Beti bezain alai eta dantzari jarrai ezazu! Etxeke guztien partez.

• Zorionak, **Nahia**, eta urte askotarako! 14 zorion-musu Elgoibartik Bilbora. Handitu da gure txikia! Etorri, nahi duzunean, eta ospatuko dugu!. Aitxita-amama, Maite eta tio.

• Zorionak, **Iker Jose**, astelehenean 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, gurasoen eta anai-arreben partez.

• Zorionak, **Iker**, abenduaren 3an 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez, eta bereziki, Iratiren partez.

• Gaur abenduak 5 zure urtebetetzea delako, zorionak aitxita Juan, Nora, Markel eta Roke-ren partez.

• Zorionak, **Eneko eta Aimar**, 7 eta 4 urte egin dituzuelako. Aita eta amaren partez.



Zoriondu ezazu **BARREN**en!

PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:
4'50€
Argazki bikoitza:
7€
Hirukoitza:
9€
Hiru lagunetik gorako taldeak:
15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:
3'50€
Argazki bikoitza:
6€
Hirukoitza:
8€
Hiru lagunetik gorako taldeak:
12€

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira
BARRENeko bulegora,
edo barren@elgoibarkoizarra.com
e-postara bidali.

Jai eguna dela eta, abenduaren 8an ludoteka itxita egongo da.



Jai egun ofizialak direla eta, aste bukaera honetan gaztelekua itxita egongo da. Igangeko asanblada asteazkenean egingo dugu.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari papera eskuratu nahi duzue?

BARREN astekarrian salgai

1€



5 barixakua

Erakusketa

18:30 Margo erakusketa

Gemma Monreal margolari elgoibartarrak ikusgai jarriko ditu bere lanak, hilaren 20ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Bideo forum-a

21:30 'Blue Jasmine'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

9 martitzena

Aurkezpena

19:30 Sare taldearen aurkezpena

Elgoibarko Sare taldea aurkeztuko dute. Teresa Toda eta Joseba Azkarragak hitzaldia eskainiko dute, musika eskolako auditorioan.

11 eguna

Dokumentala

21:00 Alex Txikon eta Ekaitz Maiz

Arnaldo Otegiaren aldeko herri plataformak antolatuta, Alex Txikon eta Ekaitz Maiz mendizaleek aurkeztuko dute dokumentala.

12 barixakua

Bakarriketa

20:30 'Potologuak'

Txintxeta produkzioak aurkeztuta, Herriko Antzokian.

KONTZETIO AZOKA

6 ZAPATUA

09:30 Barazki eta ganadu azoka zabalduko dute

11:00 IV. Sagardo lehiaketa

12:00 Mendaroko trikitixa dantza taldearen kalejira

12:30 Izetako idiek gidatutako gurdian ibiltzeko aukera. Goizean zehar, antzinako zerratokietan egiten zen lana ikusteko aukera ere izango da.

Ondoren, sari banaketa. Baserritar traje dotoreena eta mendi edo baso txukununeka sarituko dituzte. Errigorako otar bana jasoko dute irabazleek.

18:30 Maite Maiora herriko korrikalaria omenduko dute, 2014an izandako lorpen guztiengatik.

Segidan, herri kirol saioa, frontoian: Idoia Etxeberria harri-jasotzaileak, Aitzol Atutxa aizkolariak (Euskadiko txapeladuna aurten), Ugaitz Mugertza II. mailako aizkora txapelketako txapeldunordea, Jexux Mari Iruretagoiena Izeta III.ak eta Hodei Iruretagoiena Izeta IV.ak parte hartuko dute herri-kirol saioan.

Ondoren, Eusko Labeleko txerri saiheksia dastatzeko aukera.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
5 Ibañez	Astelehenerik igandera	Azkue (Eibar)
6 Garitaonandia		Toribio Etxebarria 4
7 Garitaonandia	Yudego	(943 202 344)
8 Fernandez		
9 Fernandez		
10 Yudego		
11 Zabaleta		
12 Barrenetxea		

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA
(HERRIKO ANTZOKIAN)



«Loreak»

5, barixakua: 22:15
6, zapatua: 19:00 / 22:15
7, domeka: 19:00
8, astelehena: 21:30

«Friends»

7, domeka: 16:30

CASA ASTIGARRAGA

Errosario, 16-18

Tel.: 943 743 268



Ternua Tarso txamarra: ~~169,90€~~ **126,52€**
Ternua Cathkin prakak: ~~96,95€~~ **72,72€**



Trango Pluma Menz: ~~122,85€~~ **92,14€**
Himm Trango prakak: ~~95,75€~~ **71,80€**

TERNUA eta TRANGO etxeko hainbat produktutan %25eko deskontua



Santa Ana kalea 12, behea ezk.
Tel.: 943 740 025 / 617 627 152
gobikeelgolbar@gmail.com

Haur batentzako bizikleta erosten baduzu, ekarri tiket hau eta kaskoa oparituko dizugu



G & M

Gona 39,95 €
Jertsea 38,95 €

Larruzko mangak dituen ilezko txamarra 99,95 €



Larruzko txaketa 84,95 €
Alkandora 39,95 €
bakeroak 39,95 €

%15eko deskontuak jantzi guztietan.
TIXET HONEN ERALPEN BALIOA:
abenduak 5etik urtarrilak 5era arte



San bartelome, 28 943 74 43 45



%10eko deskontua zapata guztietan tiket hau aurkeztuz gero.



BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

**Andoni Egaña
Maialen Lujanbio**

Jon Maia

Anjel Mari Peñagarikano

Miren Amuriza

Gai-jartzailea: Uxue Alberdi

HERRIKO ANTZOKIAN
Abenduak 26, ostirala
22:15

